

Besarkada



Eskultura bat sortuko dugu erabilitako eta aurkitutako objektu batzuetatik abiatuta; inguruan ditugun ohiko gauzak hartuko ditugu mundu poetikora eramateko. Pieza horri lagunduko dion beste pieza bat sortuko dugu soberako materiarekin. Besarkada literal edo metaforiko baten bidez lotuko ditugu biak.

Helburuak

- Elena Aitzkoaren obrara eta prozesuetara hurbiltzea.
- Eskulturarekin eta performancearekin esperimentatzea.
- Eskulturaren zati beteekin eta hutsuneekin lan egitea.
- Sormen-prozesuen afektuaren balioa azpimarratzea.

Aipamenak

Artistak gurean, Elena Aitzkoa: <https://www.youtube.com/watch?v=TilvhrgtSVA>

June Crespo: <https://junecrespo.com/works/dos-carrerasmugica-gallery-2017/>

Lucía C. Pino: <https://hangar.org/es/lucia-c-pino/>

Manu Uranga: <https://galeriampa.com/en/fondo-animal-lorea-alfaro-david-martinez-suarez-jon-otamendi-y-manu-uranga-25-03-17-20-05-17/>

Lara Almarcegui: <https://www.mor-charpentier.com/es/artist/lara-almarcegui/>

Sahatsa Jauregui: <https://bilbaoarte.org/Artists/sahatsa-jauregi/>

Izaro Iregi: <https://www.eitb.eus/es/television/programas/eitb-kultura/videos/detalle/6219328/video-izaro-iregi-feroz-eta-kabala/>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Elena Aitzkoaren hainbat obra ezagutuko ditugu eta galdera hauek botako ditugu:

- Zer material erabiltzen ditu bere obretan?
- Zer gertatzen da bere performanceetan?
- Zer transmititzen digute?

2. Zer da besarkada bat? Nor besarkatzen dugu? Soilik pertsonak besarka daitezke edo objektuek ere egiten dute? Objektuak besarka ditzakegu? Objektuak elkarren artean besarka daitezke?

3. Kontzeptu mapa txiki bat egingo dugu ateratzen diren ideia/erantzun guztiekin, horiek ordenatzeko eta gogoan izateko.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Ehun-gaiak, pigmentuak eta igeltsua izango ditugu ikasgelan.

2. Eguneroko ingurunetik 7 objektu ekarriko ditu bakoitzak ikasgelara. Erabilitako objektuak edo aurkitutakoak, aurkikuntzak, izan behar dute: ehun-gaiak, makilak, adarrak, loreak, liburuak, orraziak, garbiketa-tresnak, fosilak, harriak eta abar. Lehen beste objektu batzuen parte izan ziren zatiak ere izan daitezke.

3. Ikasgelako elementu guztiak kenduko ditugu, hala nola mahaiak edo aulkiak, lurrean lan egiteko.

4. Materialak manipulatu hasi aurretik, gure emozio, pentsamendu eta sententzio fisikoekin konektatuko gara meditazio baten bidez. Isilik, begiak itxi eta arnasa hartuko dugu, burua hutsik utziko dugu. Nola sentitzen gara gaur?

5. Hainbat ekintza egingo ditugu, ekintza eta erreakzio prozesu baten bidez sortzeko gure pieza; hau da, ez dugu alde aurreko diseinurik.

Objektuak aztertu, manipulatu, kokatu eta birkokatuko ditugu. Metaforikotzat har ditzakegun erlazioen bidez (sartu, batu, inguratu, lotu, sedimentatu, dekantatu eta gainean jarri) konglomeratu bat osatuko dugu.

6. Gure eskulturari forma emateko, pigmentudun igeltsuzko ehunak erabiliko ditugu. Piezak ere margotu ditzakegu.

7. Zirriborrorik eta diseinurik ez dugunez, ez dakigu nolako izango den bukaerako pieza. Eskulturak gustuko itxura hartzen duenean, "irudia agertzen" denean, etengo dugu prozesua.

8. Pieza amaitua lortu dugula iruditzen zaigunean, hori "besarkatuko" duen beste pieza bat sortuko dugu. Lehenengo pieza sortzean soberan izandako materialarekin eta objektuekin sortuko dugu bigarrena.

Besarkada literalagoa edo bisualagoa izan daiteke, piezaren hutsuneak, ahurrak eta sakonuneak aprobetxatuz eta horiek betez edo inguratuz. Metaforikoagoa ere izan daiteke, kolorea erabiliz, elementu komunen bat, piezen posizioarekin jolastuz...

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Erakusketa bat egingo dugu lurrean jarritako pieza guztiekin. Aurkezpenerako, gure piezaren inguruko poesia bat idatziko dugu. Zein izan daiteke pieza hauen historia? Zer esango lukete hitz egingo balute?

2. Performance bat egingo dugu testua ozenki irakurri eta piezak pasatzen eta haiekin elkarreragiten dugun bitartean. Inguratu egin ditzakegu, gainetik pasa, ukitu, hurbildu... Irakurtzean, intonazioan arreta jarriko dugu. Era berean, zaratak egin ditzakegu edo melodiak txistukatu.

3. Piezei erreparatuko diegu. Lehen egunean ekarri genituen objektuen zer arrasto dago? Zer bihurtu dira? Zer dute amankomunean piezek? Nola erlazionatzen dira? Zer nolako "besarkadak" sortu ditugu?